

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

18 zentrok 131.000 euroko diru-laguntza jaso dute helduen euskara-irakaskuntzarako urria eta abendua artean

Guztira 1.640 ikaslek eskuratu dute laguntza hori

Martes, 29 de diciembre de 2015

Nafarroako Gobernuak 18 zentrori 131.867 euro ematea onartu du helduen euskara-irakaskuntza diruz laguntzeko 2015eko urria eta abendua artean.

Laguntzak iragan azaroan abiarazitako deialdiari dagozkio, haietara Nafarroa guztiko 18 zentro aurkeztu ziren eta guztiak onartu. 171 talde dira orotara, eta haietan 100 irakasle baino gehiagok euskara irakasten diete 1.640 ikasleri. Epe horretan, 106.708 eskola-ordu eman ziren.

Gastuak justifikatu ahala laguntza jasoko duten zentroak honako hauek dira:

Ultzama Larraungo AEK; Iruñerriako AEK; Lizarrako Beinat Etxepare AEK; San Adriango AEK; Arrigarai AEK; Sakanako Itsasi AEK; Baztango Suinki AEK; Pirinioetako AEK; Tafalleko AEK; Izarbeibarko Errobi AEK; Arturo Kampion IKA; Sahats euskaltegia IKA; Bortzirietako Euskaltegia IKA; Atarrabiako Euskaltegia IKA; Leitzaldeko IKA Euskaltegia; A.C. Doneztebeko Euskaltegia IKA; Bai&by Iruñea; eta Orkoiengo Euskaltegia.